

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Zein dira behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak gure proiektuak funtziona dezan?

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Gogoratu:

- Gure negozio-ereduak funtzionatzeko ezinbestekoa da hornitzaile eta bazkide sare sendo bat izatea. Haiek gabe, ezin izango genituzke patinete elektrikoak eskaini, ezta gure erabiltzaileentzako esperientzia hobetzen jarraitu ere.
- **Enpresak hainbat arrazoi direla medio ezar ditzake itunak:**
 - Bere negozio-eredua optimizatzeko.
 - Arriskuak murrizteko.
 - Baliabideak eskuratzeko eta eskalagarritasuna lortzeko.

Behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak:

1. Patineteen fabrikatzaileak:

- Autonomia handiko eta segurtasun-bermeekin lan egiten duten hornitzaileak. Adibidez: Xiaomi edo Ninebot bezalako fabrikatzaile nagusiak.

2. Software eta teknologia garatzaileak:

- Aplikazio mugikorra eta flota kudeatzeko sistema garatzeko beharrezkoak direnak. Adibidez: IoT soluzioak eskaintzen dituzten enpresak, patineteen geolokalizazioa eta egoera kontrolatzeko.

3. Energia-hornitzaileak:

- Berrerabilgarriak eta jasangarriak diren energia-iturriak eskaintzen dituzten enpresak, Zarautzen kargatzeko estazioak instalatzeko. **Adibidez:** Iberdrola edo antzeko energia jasangarriaren hornitzaileak.

4. Udal eta tokiko erakundeak:

- Zarautzen lizentziak eta baimenak errazteko eta gure patineteak behar bezala kudeatzeko, ingurumen- eta espazio-arauak betez.

5. Marketin bazkideak:

- Tokiko negozio eta turismo sustatzaileekin elkarlana, hala nola, Zarautzko surf-eskolak edo jatetxeek erabiltzaileak erakartzeko.
-

Ez ahaztu batzorde ebaluatzaileak baloratuko duena:

1. Bazkide nagusiak argi eta garbi definitzea.

- **Adibidez:** Teknologia garatzaile bat (IoT soluzioetarako), patineteen hornitzaile bat eta Zarautzko udala ezinbestekoak dira guretzat.

2. Ekarpenen rolak eta garrantzia argitzea:

- Teknologiaren bidez erabiltzailearen esperientzia hobetzen dugu.
- Zarautzko erakunde publikoekin lankidetzatza, hiriko mugikortasun arazoak konpontzeko.
- Patinete fabrikatzaileekin kalitatezko produktuak eskuratzen ditugu.

3. Inbertsioaren hasierako arriskua murriztea:

- Bazkideen ekarpen ekonomiko eta teknologikoa esker, gure proiektuaren hasierako gastuak murriztu eta eskalagarritasuna bermatzen dugu.

GURE ENPRESAREN KASU PRAKTIKOA:

"Patinete Smart Zarautz" kasua:

Gure enpresa funtziona dezan ezinbestekoak diren bazkideak hauek dira:

1. Xiaomi/Ninebot fabrikatzaileak:

- Kalitate handiko patinete autonomoak eskuratzea bermatzen dute, GPS eta IoT integrazioarekin.

2. IoT teknologia garatzaileak:

- Euskal Herriko start-up teknologiko batekin lankidetzan ari gara, gure patineteen egoera eta posizioak denbora errealean kontrolatzeko.

3. Zarautzko Udala:

- Tokiko mugikortasun arazoak kudeatzeko elkarlana: patineteentzako aparkaleku bereziak eta kargatzeko estazioak baimentzea.

4. Iberdrola:

- Jasangarritasunarekin konprometituta gaude, eta gure kargatzeko estazioak energia berriztagarriarekin hornitzeko akordio bat dugu Iberdrolarekin.

5. Tokiko surf-eskolak eta ostalaritza:

- Gure patineteetan publizitate egiteaz gain, patineteak sustatzeko akordioak sinatu ditugu, turismo iraunkorra bultzatzeko.